


HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2019



Donostia, 2019ko martxo

Testuaren egilea: Lore Agirrezabal

© Diseinua eta maketazioa: Maddi Orcajo

© Galtzagorri Elkarte

Zemoria kalea 25, behe

20.013 Donostia

galtzagorri@galtzagorri.eus

www.galtzagorri.eus

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.

Araba kalea, 45

20.500 Zarautz

L.G.: SS-293-2019

HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2019



JARRAI DEZAGUN LANEAN

Galtzagorri elkarteak proiektu andana garatu ditu 28 urteko ibilbidean. Bi izan dira proiektu hauen guztien helburu nagusiak: euskal haur eta gazte literatura ezagutzera ematea eta haur eta gazteen irakurtzeko zaletasuna sustatzea. Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko proiektuak diseinatzerakoan, betiere, bi irizpide izan ditu oinarrian Galtzagorrik: bat, kalitatezko liburuak erabiltzea haur eta gazteekin egiten diren egitasmoetan; eta, bi, irakurketa bitartekariak trebatzea (irakasleak, gurasoak, bibliotekariak, kultur dinamizatzaileak e.a.)

2018an Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailarekin lankidetzan abiatu genuen “*Irakurzaletasuna sustatzeko lantegiak irakasleentzat*” proiektuak bi irizpide horiek uztartzen ditu. Gehiago ere bai: eskolak eta liburutegiak konplize bihurtu eta sare-lanean jartzera bultzatu nahi dituelako eta bitartekariak —irakasle zein bibliotekariak— formatzeaz gain, motibatu egin nahi dituelako, beraiek ere irakur zale izan daitezen, pixkanaka, irakurzaletasuna sustatzeko eragile sutsu bihurtu arte.

Izan ere, oso zaila da irakur zalea ez den irakasle batek bere ikasleak irakur zale bihurtzea. Irakurzaletasuna helduok kutsatzen baitugu, haur eta gazte horien inguruan gaudenok: familiak, irakasleek, bibliotekariak, zaintzaileak e.a. Joan Portell pedagogo katalanak 2015ean egin zuen doktore-tesian ateratako ondorioetako bat honako hau zen: gaur egun irakurle diren helduei galdetuz gero noiz hasi ziren irakurketara zaletzen, ez dute gogoratzen liburu jakin bat edo egun jakin bat; oraindik presente dute, ordea, eta argitasun handiz, ipuinak kontatzen zizkien pertsonaren bat, abesti eta poesiak errezitatzen zizkiena. Sentsazioa dute gogoan, emozioa. Guk ere irakasleak “emozionatu” nahi ditugu, irakur dezaten eta ikasleak ere

emozio horrekin kutsa ditzaten. Horretarako joango dira 2019an ere Galtzagorriko profesionalak EAEko eskoletara, irakasleentzako lantegi praktikoak eskaintzera. Egitasmoaren bigarren ekitaldi honetan, gainera, 100 eskoletara iritsiko dira (iaz baino 30 gehiagora).

Esku artean duzun gida honek “*Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak*” egitasmoaren bigarren edizioaren jarraibideak biltzen ditu esan dezakegu. Galtzagorrik urteak daramatza euskarazko haur eta gazte literaturan argitaratzen diren obrak irakurtzen, baloratzen eta hautatzen, ondoren bere egitasmoetan erabiltzeko: *Irakurketa mintegia*, *Liburuen altxorra*, *Liburu gaztea*, *Literatur aretoak*, e.a. Egitasmo horietarako egiten diren liburu zerrendak hartu dira kontuan liburu gida honetan bildu diren izenburuak hautatzerakoan. Baita, euskal haur eta gazte literaturan aditu diren Galtzagorriko kide hainbatek egindako “ezinbesteko” zerrendak ere. Lore Agirrezabal literatur kritikariak osatu eta idatzi ditu oraingoan liburu guztien aipamenak. Bigarren gida honetan, gainera, bitartekarienezako esku-hartze proposamenak gehitu dizkiogu izenburu bakoitzari, irakasleei irakurzaletasuna sustatzeko pista gehiago emateko.

Guztira EHGLko 41 izenburu jasotzen ditugu hemen. Batzuk berri-berriak, aurreko bi urteetan argitaratuak. Beste batzuk, zaharragoak izanik, duten kalitate eta interesagatik berreskuratutahi izan ditugu eta berriz ere bizia eman. Obra klasikoak ere badaude. Eta baita “*Amattoren Uzta*” euskal haur literaturako liburu klasikoa oinarri hartuta, Galtzagorrik argitaratu berri duen app-a ere, haur zein gaztetxoak irakurketara erakartzeko tresna eraginkorra delako ustea baitugu. Irakurlearen adin gomendatuaren arabera banatu ditugu guztiak. Aurten ere genero, egile, gai, formatu eta irakurketa maila ezberdinetarako izenburuak biltzen ahalegindu gara. Iaz esan bezala, zerrenda, irakasleentzako lantegietako edukiak bezala, urtero berrituko baitugu, argitaratzen diren izenburu

berriekin osatuz eta aurreko urteetako beste liburu batzuk ere berreskuratuz. Baina lehengo urteko gida kontsultatu nahi duenak www.galtzagorri.eus-era jotzea besterik ez du eta “Formazioa” atalean topatuko du.

Bigarren gida honetan biltzen diren izenburuetan oinarritutako irakurzaletasuna sustatzeko estrategiak azalduko dituzte Galtzagorriko profesionalek EAeko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroetan. Lantegi praktikoko horietara, gurditxo batean, gida honek biltzen dituen 41 liburuak eramango dituzte (26 HH eta LHkoetara; 15 DBHkoetara) eta horien bidez landu ditzaketen estrategiez mintzatuko zaizkie irakasleei, horiek haur eta gazteen irakurketaren bitartekari eraginkorrak eta motibatuak bihurtu nahian.

Constanza Mekiv IBBY-Txileko lehendakariak zioen, plazerak arre-ta sakona sortzen duela eta, hala, adimena eta emozioa nahastuz, irakurtzen duguna gure baitan geratzen dela: “Hezkuntzaren bidez jendartearen aldaketa lortu nahi badugu, tresna eraginkorrenetako bat gozamenek irakurtzea da: alegia, gure haur eta gazteak irakurzaletzea”. Gianni Rodariri entzuten badiogu, gainera, jakingo dugu “zaletu bihurtzeko modu bakarra kutsatua izatea dela”. Urtero berritzeko asmoa dugun gida hau, beraz, langintza handi baten jarraibide, edo hobe, koordinatuak biltzen dituen mapa besterik ez da: irakasleek ere gozamenek irakurtzea eta, hartara, horiek ikasleei irakurtzea eskubidea eta gozamena dela transmititzea da azken helburua.

Langintza horretan, irakasleentzako lantegietan banatuko dugun gida xume hau, irakasle nahiz liburuzaintzat baliabide erabilgarria izango delakoan gaude. Hemendik abiatuta, lan handia dugu oraindik egiteko. Bada, jarrai dezagun lanean.

Galtzagorri elkarte
Donostia, 2019ko otsaila

2 urtetik aurrera:

BAT, BI, HIRU, TXIRULIRU!	8
HONTZ KUMEAK	9
POZA	10

4 urtetik aurrera:

URA GUSTUKO EZ ZUEN KROKODILOA	11
EZ DA KAXA BAT	12
SAMURGOA	13
UNERIK ONENA	14
AURRETIK, ONDOREN	15

6 urtetik aurrera:

COSIMOREN KATIUSKAK	16
BIDEAN	17
MAU IZ IO?	18
IPUINAK NAHASTEN	19
EUSKAL HERRIETAKO IPUIN GAIZTOAK	20
INTXAUR AZPIAN	21
TXERRITXO	22
ZUPANKAPALOAK	23
NIK PAPAITA, ZUK PAPAITA	24
BOLIGRAFOA	25
ENIGMAK	26

8 urtetik aurrera:

GRIGOR ETA ERLEA	27
BIDAIA	28
MARI XOR	29
ELEFANTEAREN TRISTURA	30

10 urtetik aurrera:

KORRI, KURU, KORRI!	31
EMILIREN DESABENTURAK	32
PRINTZESA PUZKERTIA	33

12 urtetik aurrera:

ZOOM	34
GERLARI HANDIA	35
ZIMURRAK	36
MAITE DUT	37
MALEN LABIRINTO MADARIKATUAN	38
SASIOAKO ERROTARIA	39
ENIGMA BI, ERANTZUN BAT	40
JESSICAREN ITZALA	41
LIMOIONDOAREN LOREAK	42

14 urtetik aurrera:

EZPAINETAKOA	43
GARTXOT	44
BESARKADA	45
EFEKTU BEREZIAK	46
MAREN	47
KAMISOI ZURI ZETAZKOA	48

Klis-Klasikoak APP:

AMATTOREN UZTA + APP	49
----------------------------	----



BAT, BI, HIRU, TXIRULIRU!

Idazlea: Nadia Budde

Ilustratzailea: Nadia Budde

Itzultzaile eta moldatzailea: Xabier Olaso


ISBN: 978-84-9172-048-5

Pamiela-Kalandraka, 2018

16 orrialde

Liburu honen egitura kateatua da; errepikapenean, nahiz hainbat egoera eta jokaeratan dauden pertsonaia arraro eta baldarren jolas kateatua. Bertan ageri den figura-saila bere itxura beldurgarria dela-eta nabarmentzen da: banpiroak, mamuak, munstroak, sugeak, marrazoak, krokodiloak, katu beltzak... Hala ere, haien begirada samur eta burlatiak irribarrea eragingo dio irakurleari. Entzule txikieneztat ozen entzuteko eta jolas egiteko liburu oso jostagarria da. Logika eta absurdoak agertzen dira, eta, horien bidez, diziplinartekotasuna lantzeko aukera eskaintzen du. Serie logikoak (handia, ertaina, txikia/ bat, bi, hiru...), neurria, egoera, lekua eta bestelako multzoei dagozkienak erakusten dizkigu. Errimatua da, erritmo eta musikaltasun handikoa. Horrek jolas fonetikoak egiteko eta berriak sortzeko aukera polita ematen du. Besteak beste, honelakoak irakur daitezke: “*Bat, bi, hiru... txiruliru!*” edo “*Handia, ertaina, txikitxo... txerritxo*”). Album ilustratu honek Alemaniako haur eta gazte literatura saria eskuratu zuen 2000. urtean eta badu bilduma berean beste liburu bat ere oso antzekoa: *Bat, bi, hiru, banpiro!*

Bitartekariaren esku hartze proposamena: Jolas fonetikoaz gain, erraz antzematen da duen egitura kateatua. Beraz, ahots goran oso ongi funtzionatzen du.



HONTZ KUMEAk

Idazlea: Martin Waddell

Ilustratzailea: Patrick Benson

Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni

ISBN: 978-84-7681-993-7

Pamiela-Kalandraka, 2017

34 orrialde

Gauetz esnatu eta ama habian ez dagoela ohartzean, hiru hontz kumek jasaten duten estualdia kontatzen du liburuak. Hontz kumek zur eta lur geratzen dira espero ez zuten egoera horretan, zuhaitzeko beren adarrean geldi-geldi ama etorri arte. Luze egingo zaie, eta, oso kezkatuta egongo dira, izututa ere bai une batzuetan, ez baitakite ama benetan itzuliko ote den eta bakarrik geratuko diren. Hontz kumeen lekuan berehala irudikatuko dugu haur txiki bat, ama ez egoteak sortzen dizkion sentimenduak kudeatu ezinik. Dena dela, kume bakoitza egoera hori bere modura ulertzen ahaleginduko da: zaharrenak azalpen logikoa bilatu nahiko dio; erdikoak arrazoa emango dio zaharrenari; eta, txikiak behin eta berriz eskatuko du ama itzultzeko. Zain dauden bitartean kumeen sentimenduak ere aldatzen joango dira: segurtasunik eza, kezka, eta, zaharrenak erakusten duen ardura eta txikiak babesteko sena. Irudiak oso indartsuak dira; gauaren iluna eta hontz kume zurien lumaje dardaratia ezin hobeki nahasten ditu Patrick Benson ilustratzaileak. Martin Waddellen testua, berriz, hitz gutxikoa baina oso zuzena da.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: Ozen kontatzeko oso aproposa da, haurrak berehala sartzen dira istorioan, haientzat oso gertuko sentimenduak baitira eta identifikatuta sentitzen dira.



POZA

Idazlea: Uxue Alberdi

Ilustratzailea: Eider Eibar


Elkar, 2018

ISBN: 978-84-9027-897-0

28 orrialde

Bertsotan idatzitako album ilustratua da hau. Uxue Alberdiren hamar bertso eta Eider Eibarren ilustrazioek osatzen dute pozari buruzko liburu alai hau. Hostoz betetako azaletik barrura eginda, naturaz inguratutako mikrokosmosetan, bertsoz bertso, ia zomorroak adina poz topa ditzakegu: inurri-poza, erle-poza, matxinsalto-poza, tximeleta-poza... Izan ere, nork ez ditu noizbait tximeletak sentitu tripan? Eta zein sentimenduri lotuta izan ohi da hori? Bada, badira zomorroekin lot ditzakegun poz gehiago ere, besteak beste, ilunabarrarekin zerua izarrez betetzen ikusteak ematen diguna “ipurtargi poza” izan daiteke. Maiz, orbel, hosto edo belar artean ez ditugu bertan bizi diren zomorro txikiak ia ikusi ere egiten, baina han izaten dira. Bada, gauza bera iradokitzen digu liburu honek ere, alegia, sarri, guk ikusi edo une horretan sentitu ez arren hortxe egoten dela poza ere. Eider Eibarren irudiek orrialde osoak hartzen dituzte album honetan, biribiltasunez betetako marrazki beroak dira gehienak, sentimenduaren tenperaturarekin bat datozenak. Liburuan oinarritutako abestia eta bideo-klipa ere grabatu dute (sarean dago); horretan, Iban Urizar musikariaren laguntza eta parte hartzea izan dute.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: ozen irakurri edo abestu, eta, ondoren, sentimendu horri buruz hitz egiteko aukera polita ematen du; ea pozak eragiten diguna zomorro gehiagorekin lotzeko gai garen.



URA GUSTUKO EZ ZUEN KROKODILOA

Idazlea: Gemma Merino

Ilustratzailea: Gemma Merino

Itzultzailea: Mónica Crespo

Picaron, 2018

ISBN: 978-84-9145-173-0

32 orrialde

Benetan arazo larria du liburu honetako protagonistak: ez zaio ura gustatzen. Tira, agian, ez da hain larria, asko dira ura gustuko ez dutenak. Kontua da krokodiloez ari garela, alegia, ura gustuko ez duen krokodiloa dela liburu honetako protagonista. Berari zuhaitzetan gora igotzea gustatzen zaio, baina horretara jolasteko ez du lagunik, bere anaia-arreba guztiek eguna uretan pasatzen baitute jolasean. Ez du jolaskiderik aurkitzen eta bakarrik egon nahi ez duenez, urari dion beldurra gainditzeko ahalegina egingo du. Baina lortuko ote du? Zer ote da garrantzitsuago: gustuko ez ditugun gauzak egiten tematzea besteek egiten dituztelako soilik, edo nork bere burua den bezala onartzea eta hala agertzea besteen aurrean ere? Bada, hori da, hain zuzen, album ilustratu eder honen muina. Besteengandik desberdin sentitzeak eragiten digunaz mintzatzeko aukera ezin hobea ematen du. Izan ere, zergatik saiatzen gara guztiok berdinak izaten? Ez al da, bada, bakoitza bat eta bakarra?

Bitartekariaren esku hartze proposamena: Hurrek dituzten beldurrez hitz egiteko aproposa da; bakarrik sentitu da inor zerbait egiteko gai ez zelako, inoiz inor egon da krokodilo txikiaren egoeran?



EZ DA KAXA BAT

Idazlea: Antoinette Portis

Ilustratzailea: Antoinette Portis

Itzultzailea: Eva Linazasoro

Pamiela-Kalandraka, 2017

ISBN 978-84-7681-998-2.


32 orrialde

Album ilustratu honek oso modu xehean irudikatzen du objektuen soiltasuna nola kontrajartzen den haur baten irudimenak sor dezakeen unibertso aberatsarekin, eta irudimenezko mundu hori zeinen urrun dagoen helduon logikatik.

Liburu honetako protagonistak kartoizko kaxa handi bat du eta harekin jolasean hasi orduko, galdera egiten diote: “Zergatik zaudete kaxa batean eserita?”; “Zertan ari zara kaxa horren goitian?”; “Zergatik ari zara kaxa bustitzen?”. Untxiak erantzun bakarra du galdera guztientzat: “Ez da kaxa bat”. Izan ere, berak kirol-auto bat, mendi-tontor bat, eraikin bat, robot bat eta beste hainbat gauza ikusten du kaxaren lekuan.

Haurren irudimena, jolasa eta askatasuna aldarrikatzen ditu kaxa soil bat aitzakia hartuta. Jostailu sofistikatorik izan gabe, edozein elementuk eman dezakeen jolaserako aukeraren aldarria egiten du. Irudien eta testuaren xumetasuna da liburu honen ezaugarrietako bat. Galdera-erantzunera mugatzen da testua, eta, marra beltz soilez irudikatzen da egoera bakoitza, ondoren, untxiaren begiek ikusten dutena eransten zaio eszena horri marra gorritz irudikatuta.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: kaxak eraman daitezke gelara. Horiekin hainbat jolas: mimika-jolasa kaxa zertan bihurtu den asmatzeko, istorio berriak sortzeko, esku-lanean kaxa beste zerbaitetan bihurtzeko...



SAMURGOA

Idazlea: Claude Boujon

Ilustratzailea: Claude Boujon

Itzultzailea: Alice Casenave eta

Ikas-eko lankideak

IKAS pedagogia zerbitzua, 2017

ISBN: 978-2-84963-136-2

30 orrialde

Adiskidetasunari buruzko alegia bat da liburu hau. Lagun arteko harremanen abantailak eta tarteka sortzen diren tira-birak eta haserreak (samurgoak, Iparraldeko euskalkietan) azaleratzen ditu, bi protagonisten elkarbizitza abiapuntu hartuta. Hasieran izaera berdintsua duten bi untxi adiskide baino ez dira. Denborak aurrera egin ahala, ordea, bakoitzaren ohiturak eta maniak areagotu egiten dira, elkarbizitza hori ozpintzeraino. Azkenean borrokan amaitzen dute eta zelatan dabilen azeriak une hori baliatzen du untxiak harrapatzeko. Zorionez, piztiaren hatzaparretatik ihes egitea lortu eta adiskidetasuna berreskuratzen dute. Elkarbizitzaren zailtasunei aurre egiteaz, eta, norberaren ohiturak, maniak eta beldurrak baztertu gabe urruntzen gaituzten ezaugarriak gainditzeaz, eta, gerturatzen gaituzten horiek indartzeaz dihardu istorioak. Umore kutsu handiko kontakizuna da, xehea dirudien arren, guztiontzat oinarrizko irakaspena duena.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: tertulia edo eztabaida literarioaren bidez, norberaren esperientziak partekatzerara hel gaitzeko: Zer iruditzen zaizue Grisu eta Gaztainek egindakoa? Zuek ere haserretzen al zarete adiskideekin? Noiz? Eta zergatik adiskidetzen zarete?



UNERIK ONENA

Idazlea: Susanna Isern

Ilustratzailea: Marco Somà

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Fragatina Edizioak, 2016

ISBN: 978-84-16566-50-1


32 orrialde

Azalean bertan agertzen da ipuineko protagonista: Urtxintxa. Etxetik irteten ikus daiteke, presaka baina bare, bere begi itxiek iradokitzen dutenez. Nora ote doa? Galdera horixe da hasieratik irakurleak egingo duena eta orriz orri erantzunaren bila amaieraraino eramango duena. Susanna Isern idazleak ederki asmatu du, gainera, bidean galdera hori airean mantentzen eta amaiera sorpresa polit batekin ematen.

Urtxintxak gutun bat jaso du goizean eta hura irakurri bezain azkar urduri, korrika eta presaka irten da etxetik. Bidean, ordea, hainbat adiskiderekin egin du topo; denek laguntza eskatu diote, horretarako unerik onenean iritsi dela esanez. Urtxintxa, ordea, presaka dabil eta beretzat unerik egokiena ez den arren, ezezkorik eman ezinda, guztiei laguntzea erabaki du.

Egoerak errepikatuz –baina errepikapenean erori gabe– eta egitura metatua baliatuz, jakin-mina eta tentsioa mantentzea lortzen du Isernek. Horri esker, haurrek ipuinaren haria berehala memorizatuko dute, jolas bihurtuz.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: ozen eta ilustrazioekin gozatzeko irakurtzeko oso aproposa. Ondoren, gutunak idazteko aukera eman dezake. Antzerkia egiteko ere egokia da pertsonaia asko agertzen baitira istorioan.



AURRETIK, ONDOREN

Egileak: Anne-Margot Ramstein eta

Matthias Aregui

Tarttalo, 2014

ISBN: 978-84-9843-462-0

166 orrialde

Liburu irudidun mutua da hau. Ahotsa eta narrazioa irakurle-entzuleek jarri behar diote. Berehalakoan ikusten ez den arren, lehen-hiztegi bat da. Zehatzago esateko, dibulgazio liburua da, prozesuen agerpen grafikoa eskaintzen baitu: ezkurra-haritzza, beldarra-tximeleta, eta abar. Hasieran begi-bistakoak diren arren, aurrera egin ahala bihurriagoak dira irudien arteko harremanak: basoa sutan eta basoa ernamuetan, esaterako. Azalpen teknikoak, biologikoak eta beste jakintza arlo askotakoak ere eskatzen dituzte irudiek eta haien arteko loturek. Era berean fikziorako bidea ere badago, batzuetan nabarmen, eta beste batzuetan, ezkutuago.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: irudiekin istorioak kontatzeko eta jolas ginez ikasteko proposamenak eskaintzen ditu.



COSIMOREN KATIUSKAK

Idazlea: Dani Martirena

Ilustratzailea: Ana Ibañez

Pamiela, 2018


ISBN: 978-84-9172-059-1

38 orrialde

Besapean saria duela argitaratu da liburu hau. Hain zuzen, haurrentzako album ilustratuaren XII. Etxepare Saria jaso zuen, eta, epaimahaiak testuak eta ilustrazioek duten indarra nabarmendu zuen.

Italo Calvinoren *Il barone rampante* (1957) liburu ezaguna izan dute abiapuntu, baina gaurkotuta ekarri dute liburu honetara. Hemen ere Cosimo izeneko mutikoa da protagonista eta honek ere Calvinorenak bezain izaera konformagaitza du. Parke txiki batean kokatzen da kontakizuna, bertan Cosimok zuhaitz-etxola bat eraiki du eta inguratzen duen guztia ikus dezake handik. Jatorrizkoak bezala, honek ere gure gizartearen kontraesanak azpimarratzen ditu ingurumena-rikiko kontzientzia eraginez, eta, askatasuna eta elkertasuna aldarrikatuz. Karga sinboliko handia dute Martirenaren esaldiek. Horrez gain, baliabide poetiko ugari osatu du testua eta baliteke irakurleek bitartekariaren laguntza behar izatea ulermenerako. Hala ere, irudi eder eta ausartez betetako album ikusgarria da eta guztiek gozatu dute irakurketarekin. Izan ere, Ana Ibañezek collage teknika eta marrazketa nahastuz sortutako irudiak testuaren osagarri garrantzitsu bihurtzen dira, album ilustratuetan gertatzen den bezala.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: testuak hausnarketarako eta eztabaidarako gaia ematen du, baita matematika-jolasak egiteko (neurriaren bidez) edota baratzea martxan jartzeko aukera ere. Ilustrazioak collage teknika lantzeko aitzakia polita dira.



BIDEAN

Idazlea: Garazi Arrula

Ilustratzailea: Helena Azkarragaurizar

Denonartean, 2018

ISBN: 978-84-16791-82-8

40 orrialde

Ikara hitzetik abiatuta irudiz betetako mundua aurkituko du bere baitan liburu honetako protagonistak. Iratiri, bere ikaskideei bezala, ikara margotzeko eskatu dio irakasleak. Hitzaren inguruan entzungo dituen azalpenak ilunak egiten zaizkion arren, bere baitan bilatzen saiatuko da, eta, barruko ahotsari kasu eginez, hitzaren ertz guztiak arakatzen ditu; irudimenaren bidez mosaiko eder bat osatuz. Iru-diek xehetasun asko dituzte eta nahasian agertzen dira, Iratiren irudimenarekin batera irakurlearena ere martxan jar dadin. Koloreak, formak, lerroen bidez irudikatutako lekuak, pertsonaiak... Haurrek mundua behatzeko duten begirada da liburuaren ardatz nagusia: begirada zabaldu, galderak egin, ideia ulertu eta gauza bakoitzaren irudia osatu, hitza irudi horrekin lotuz. Hain zuzen, horixe da lan honetan gertatzen dena, hitzak eta marrazkiak lotu egiten dira irakurleari bi hizkuntzekin jolas egiteko proposamena luzatuz.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: solasaldi bat egin daiteke istorioa irakurtzen hasi aurretik eta ondoren, galdera honetatik abiatuz: zer da ikara?



MAU IZ IO?

Idazlea: Carson Ellis

Ilustratzailea: Carson Ellis


Barbara Fiore, 2017

ISBN: 978-84-15208-88-4

48 orrialde

Landare baten bizitzaren zikloa eta bere inguruan sortzen den mikrokosmos txikiaren inguruko istorioa asmatu du album ilustratu eder honetan Carson Ellis ilustratzaile estatubatuarrak. Album mutu gisa irudikatu omen zuen sortze prozesuan, baina amaitu aurretik hitza jartzea erabaki zuen eta horrekin guztiz biribildu zuen lana. Izan ere, ez zituen ingelesez idatzi landarearen inguruko zomorroen elkarrizketa eta eztabaidak, ez, zomorro-hizkuntza asmatu zuen eta horrela argitaratu. Hala ere, intsektu txiki horien mintzaira ulertzen ez dugunontzat ere ulertzeko modukoa da, orrialde osoak hartzen dituzten ilustrazioetan idatzita baitatoz elkarrizketak eta testuinguruan erabat txertatuta daude. Edozein lorategi, belardi edo zokotan sortzen den landare baten inguruko bizitza erakusten digu, bertakoengan eragin duen lilura, harridura... eta, bidez batez, bizitzaren zikloa: sortu, hazi, loratu, hil. Esku-hartzerik gabeko behaketara gonbidatzen gaitu Ellisek album eder honetan.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: Xomorroen hizkuntza gurera itzultzen saiatu, xomorroen hizkuntza asmatzen jarraitu, ipuin laburtxoak sortuz... Edo intsektuak alderdi biologikoagotik aztertzeke aukera baliatu.



IPUINAK NAHASTEN

Idazlea: Gianni Rodari

Ilustratzailea: Alessandro Sanna

Itzultzailea: Fernando Rey

Pamiela-Kalandraka, 2017

ISBN: 978-84-9172-011-9

32 orrialde

Haur guztiak ezagutzen duten ipuin klasiko bat (*Txanogorritxo*) beste modu batera irakurtzeko gonbidapen bikaina egiten digu Gianni Rodari handiak liburu honetan. Istorioa berak zuzenean moldatuta aurkeztu beharrean, haur bat eta bere aitona jartzen ditu lan horretan: narratzaile ari den aitona Txanogorritxoren ipuina gaizki kontatzen du (nahita), eta bilobak, entzuten ari denarekin harrituta, zuzenketak egiten dizkio etengabe. Modu horretan lortzen du aitona neskatoa kontalari lanetan sartzea, entzule pasibo izatetik aktibo izatera pasatzea. Horrez gain, ipuinak nahasiz, hanka-sartzeak adierazpide aberats bihurtzen ditu aitona. Irakurlearen irudimena kitzikatzeko modua ere bada, ezaguna zaiguna beste modu batera, oso nahasian, ikustaraztea.

Gianni Rodari maisua izan zen istorioak kontatzen, eta bikain erakutsi zuen hori bere *Telefonozko Ipuinak* liburuan. Album ilustratu honetan, Rodariren testuan oinarrituta, Alessandro Sanna irudigileak Txanogorritxori beste modu batez begiratzeko gonbidapena egiten digu, ezagun den oro “hausten” jolasteko.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: irakurketa ozena behar du, haurrek parte hartuko baitute prozesuan. Ondoren, liburuan bezala guk geuk ere istorio ezagun batetik berri bat sortu dezakegu (amaierak aldatu, pertsonaia berriak sartu...).



EUSKAL HERRIETAKO IPUIN GAIZTOAK

Idazlea: Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: Elena Odriozola


Denonartean, 2018

ISBN: 978-84-16791-86-6

58 orrialde

Trilogia baten bigarren liburua da hau. 2017an argitaratu zen *Euskal Herrietako ipuinak* liburua eta 2018koa da *Euskal Herrietako ipuin gaiztoak*, biak ala biak Juan Kruz Igerabidek jaso eta moldatu-takoak eta Elena Odriozolak ilustratuak. Liburu bakoitzean bosna herri-ipuin bildu ditu Igerabidek. Ozen irakurtzeko modukoak eta gustura entzutekoak dira guztiak; gure tradizioan murgiltzeko bi-dea erakusten digute. Ipuin gaiztoen bilduma honetan maitagarri, amaizun, sorgin eta herensugeei buruzko istorioak jaso ditu: *Ama-umeak*, *Amaizun gaiztoa*, *Sorgin gaiztoa*, *Beltxane*, eta, *Amak hil nau*, *aitak jan nau*. Zein baino zein ikaragarriagoak dira, baina guztiak amaiera zorionsua dute, irakurleak lasai arnas har dezan eta hurrengo entzuteko belarriak gogotsu izan ditzan. Igerabidek berak liburua hitzaurrean dioen bezala, ipuinetako gaiztotasuna jolas sinboliko gisa bizitzen dute haurrek. Ipuin bateko gorputz atal gabetua berriro osatzen den arteko lasaitasunik ez dute izango, baina tentsio edo larritasun horrek berak haien atenzioa bahitzeko ahalmena du. Horra literaturaren magia. Halaber, gure irudimenari abiapuntua emateko irudi zoragarriak sortu ditu Elena Odriozolak liburu honetarako ere. Ipuin bakoitzaren hasieran hiru orriren neurriko ilustrazioa zabal daiteke eta istorioaren pasarte bat ikusiko dugu bertan.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: ozen kontatzeko ipuinak direnez gelan kontatu, eta ahozko tradizioa landu eta bilduma bat osatu: olerkiak, esaera zaharrak, ele zaharrak...




INTXAUR AZPIAN + BILDUMA
Idazlea: Antton Kazabon
Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Denonartean, 2017
ISBN: 978-84-16791-48-4
44 orrialde

Hitz neurtuan eta errimarekin osatutako alegiazko kontakizunak dira 3 liburuko bildumatxo honetan Antton Kazabonek jaso dituenak. Haurrei ozen irakurtzeko aproposak dira eta ilustrazioak erakutsiz eginez gero, gozamen hutsa izan daitezke. Izan ere, Jokin Mitxelenak ur-margoz eta tintaz bustitako irudiekin osatu ditu fabula moderno horiek eta benetan lan biribila plazaratu dute.

Intxaur azpian liburuan Marramiau katua etxeko atarian bizi da. Bertatik bertara dagoen intxaurrondoan Buxtangorri katagorria dabil, janari bila zuhaitzean gora eta behera. Katuak bere senari segituz katagorria harrapatu nahiko du, baina gaur ez du lortu eta oraingoz libratu da buztan gorri txikia, bihar auskalo!

Piku azpian liburuan, berriz, ehiztari baten (harrapakaria gizakia da orain) eta txoritxo batzuen arteko lehia ematen da. Pikondo batean txolarre ama sei kumerekin bizi da. Ehiztariaren tiroak txita bat botako du. Ehiztariri, ordea, bihotza bigunduko zaio eragindako kalteaz ohartuta, eta pikuak tiroz lurrera botatzen hasiko da, txolarreek jana izan dezaten.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: ipuinak ozen kontatzeko oso egokiak dira. Zuhaitz inguruetako istorioak direnez, beste fruta-arbolaren bati buruzko istorioen bat sor daiteke.



TXERRITXO

Idazlea: Arnold Lobel

Ilustratzailea: Arnold Lobel

Pamiela-Kalandraka, 2009

ISBN: 978-84-7681-593-9

67 orrialde

Baserri batean bizi den txerri zorionsua da liburuko protagonista. Baserritarrek izugarri maite dute eta pozik bizi da bere txerritegian, lokatz artean. Etxeko-andreari, ordea, baserria goitik behera garbitzea bururatu zitzaion behin, eta, zeregin horretan, txerritegia ere guztiz garbitu zuen, lokatz tanto bat bera ere utzi gabe. Txerritxok, ordea, lokatz biguna behar du bizitzeko, eta bizileku berri baten bila abiatuko da atsekabetuta. Bidean bere lokaztiaren antzeko lekuak aurkituko ditu, baina bidaia ez da berak uste bezain samurra izango eta abentura askotan murgilduko da. Lobelen ipuin gehienetan bezala, honetan ere animalia bat da protagonista eta haren oinarritzko sentimendu eta emozioak azaleratzen ditu, oso modu zehatz eta xumean.

Ilustrazioak ere bereak dira, oso adierazkorrak, liburuko pertsonaiak, hauen emozioak eta eszenatokiak primeran islatzen ditu. Orrialdez orrialde, batzuetan testua nagusitzen da eta gero marrazkiek hartzen dute garrantzia, baina erabat osagarriak dira kontaktuzun osoan.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: beste animalia batzuekin ere ariketa bera egin daiteke, beharrezko duten inguruetik at nola irudikatuko genituzke? Bide batez, Lobelen lana eza-gutzeko aitzakia bikaina da liburu hau.



ZUPANKAPALOOK

Idazlea: Pello Añorga

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Denonartean, 2018

ISBN: 978-84-16791-84-2

176 orrialde

Hitzak soinu bihurtzen dira Pello Añorgak eta Jokin Mitxelenak elkarrekin sortutako album honetan. 1999an argitaratu zen lehen aldiz eta 2018an berrargitaratu. Hitzekin jolas egiteko liburua da: *“Lurrun/ lurrun/ mundua dago bertan/ mundua dago urrun”*. Liburu honetan, Pello Añorgaren ahozko tradizioarekiko gosea erabat asetzen dela esan daiteke. Haren saio bat irudikatuz, orrialdeak ozen irakurtzera eta behin eta berriz errepikatuzera eramango gaitu. Poemak eta hitz jokoak dira gehienak. Badira soinu eta musika bera duten poemak: *“Zeren Zen Zen Zen/ oso zezen arraroa zen/ zeren, Zeren zen zen zen/ adarrik gabea omen zen./ Ai, Zeren Zen Zen Zen,/ oso zezen arraroa zen”*. Baina zenbaitetan irudia bera da poema; hor dago Mitxelenaren arte eta sortze lana. Testu oso labur batek lagunduta ikusiko dugu askotan, eta ez dugu jakingo zer izan zen lehenago, irudia ala testua.


Bitartekariaren esku hartze proposamena: idazketa kreatiboa lantzeko lantegia egin daiteke, edo ilustrazioak ikusita esaldi zoroak asmatzera jolastu.



NIK PAPAITA, ZUK PAPAITA
 Idazlea: Xabier Olaso
 Ilustratzailea: Agurtzane Villate
 Pamiela, 2017
 ISBN: 978-84-7681-996-8
 144 orrialde

“*Pipitaki-papataki, zer gauza den nork daki? Triki-traka-triki-tren, jolas gaitezen*”. Horrela hasten da 400 igarkizun, 10 olerkizun eta 30 igarkilima biltzen dituen liburu hau. Igarkizun gehienak errimatuak dira, eta askok iruditxo bat dute alboan (argazki edo marrazki bat). Igarkezunak asmakizunak dira, baina beste formatu batean datoz: hitz azpimarratuekin, letra tipo desberdinekin, kolore nabarmenduekin, taulatxoekin, hutsuneekin... *Olerkezunak*, ere igarkizunak dira, baina poesiaren ezaugarriari lotuago agertzen dira, alegia, poema dira asmakizun bezainbat. Olasok berak atarikoan aipatzen duen bezala, guztiak hizkuntzarekin jolasten dira, hoskidetasuna, esanahi ugaritasuna, kakofonia, eta halakoez baliatuta. Liburuaren amaieran erantzunen aurkibideak daude, hurrenkeraren arabera, gaika, eta berezientzat (*igarkilimak* eta *olerkezunak*) beste bat.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: jolas egin asmakizunak asmatzera, edota hitz-jolasak buruz ikasi eta “oilar-borroka” moduko batera jostatuz.



BOLIGRAFOA

Idazlea: Raphaël Fejtö

Ilustratzailea: Raphaël Fejtö

Itzultzailea: Miren Agur Meabe


Ttartalo, 2017

ISBN: 978-84-9843-738-6

32 orrialde

Asmakizun txikiak bildumako bigarren zenbakia da hau. Bertan boligrafoa asmatzera iritsi aurreko bidea eta boligrafoaren bilakaera kontatzen dira. Gaur egun hain egunerokoa den eta guztiontzat hain eskura dagoen tresna nor, noiz eta nola sortu zuten jakiteak gure ingurua hobeto ulertzen lagunduko digu, alegia, gauza bakoitzak duela asmatzaileraren bat eta asmatua izateko arrazoi edo beharren bat. Asmakizun horrek sortzetik gaur egunera arte izan duen bilakara ezagutzeak ere gizakiaren historiaren berri emango digu. Hain zuzen, liburu honetan ere asmakizunaren ibilbide kronologikoa ikus daiteke, historian zehar izan diren idazteko gailu ezberdinen berri emanez. Azalpenak testu laburren eta ilustrazioen bitartez ematen dira. Ilustrazioak bat datoz testuaren tonuarekin, eta, informazioa eta egoerak hobeki ulertzen laguntzen dute. Tonua arina eta jostaria da; ilustrazioetan irakur daitezkeen elkarrizketek umore ukitu handia dute.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: narratiba erabiltzen duen dibulgazio liburu bat denez, interesgarria da horrelako testuak ezagutzea.



ENIGMAK

Idazlea: Ana Gallo

Ilustratzailea: Victor Escandell


Itzultzailea: Miren Agur Meabe Plaza
Tarttalo, 2017

ISBN: 978-84-9843-810-9

64 orrialde

Zenbaitetan logika eta beste batzuetan irudimena erabiliz hainbat enigma ebazteko jolas-liburua da. Kasu batzuetan pistak testuan eta ilustrazioetan aurki daitezke, besteetan, ordea, liburutik kanpoko hipotesiak egin beharko ditugu igarkizuna ebazteko. Enigmen zailtasunaren araberako taula bat ere badu, eta, irakurketa-jolasa taldean edo bakarka egin daiteke. Enigmen soluzioak orrialde bakoitzeko zati hegalduen azpian aurkituko ditugu. Formatu handiko album ilustratua da. Victor Escandellen ilustrazioak umore ukitu handikoak dira eta egoera bakoitza hondo zuriaren gainean marraztuta dago, orrialde osoak hartuz. Jolaserako, logika eta irudimena lantzeko, barez lehertzeko eta une dibertigarriak partekatzeko aukera ematen du liburu honek.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: egiazko detektibeen moduan liburuak planteatzen dituen kasuak argitzera jolastu eta ondoren kasu horiek antzestu edota ipuin bilakatu daitezke gai-nontzeko gelakideei kontatzeko.



GRIGOR ETA ERLEA

Idazlea: Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: Concetta Probanza

Alberdania, 2018

ISBN: 978-84-9868-382-0

124 orrialde

Grigorren abenturak banaka kaleratu ziren duela bi hamarkada, bakoitza bere tituluarekin, Kalamatxin saileko azpi-sail bat osatuz *Grigor eta erlearen ipuinak* goiburuarekin: *Egunez parke batean* (1993), *Gauetz zoo batean* (1994), *Denboraldi bat ospitalean* (1995), *Oporraldi bat baserrian* (1996) eta *Maisu berria* (2000). Argitalpen honetan horietako lau berrargitaratu dituzte, *Maisu berria* kanpoan utziz. Lehen abenturan (*Egunez parke batean*), sei urte ditu Grigorrek, artean ez du errealitatea fantasiatik bereizten, eta erle baten lagun min egiten da. Bigarrean (*Gauetz zoo batean*), istripu baten ondorioz ametsezko mundu batean dagoen Grigor bat ikusiko dugu. Pertsonen arteko elkarrekinntza da gai nagusia: jolasa, min ematea eta hartzea, zigorra... Inozentzia galtzen hasteko garaian sartu da protagonista. Hirugarren kontakizunean (*Denboraldi bat ospitalean*) Grigor mutu geratu da kolpe baten ondorioz eta ospitalean sendatu beharra dauka. Istorio honetan adiskidetasuna da ardatza. Laugarrena (*Oporraldi bat baserrian*), besteetan baino indar gutxiagoz bada ere, anekdotez betetako pasarte da.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: Grigorren istorioak jarraitzeko, haren irudi erraldoi bat jarri daiteke ipuinen txokoan eta kontatu ahala, kapitulu bakoitzean agertzen diren lagun berriak jarri bertan. Hizketarako gaia: ikusteko adinarekin nola aldatzen den ingurua eta ingurukoekin harremanetan jartzeko modua.



BIDAIA

Idazlea: Francesca Sanna

Ilustratzailea: Francesca Sanna

Itzultzailea: Miren Agur Meabe

Ttartalo, 2017

ISBN: 978-84-9843-694-5


48 orrialde

Gerratik ihesean dabilen familia baten bidaia haur baten ikuspuntutik kontatzen da liburu honetan. Gerra hasi da herrian eta aita desagertu da. Amak, leku seguruago baten bila, bertatik alde egitea erabakiko du eta Europarako bidaia hasiko dute. Bidea oso luzea izango da eta mugak, hesiak, polizien presentzia erasokorra eta beste hainbat zailtasun gainditu beharko dituzte... Album ilustratu honetan gerraren errealitate gordina ikus daitekeen arren, amaren ahaleginari esker, samurrago egingo dute bidea, umeen larritasuna amaren gozotasunarekin beratuko baita uneoro.

Ilustrazioen bidez bi sentimendu horiek indartu egiten dira: baikortasuna kolore argi eta pastelekin, eta, beldurra kolore ilunekin. Indar handiko irudiak dira.

Gizakiak egoerarik gogorrenetatik irteteko itxaropenak bultzatuta, oztopoak, zailtasunak eta beldurrak gainditzeko duen indarra azalertzen du istorioak. Une honetan hainbat eta hainbat lagun jasaten ari diren sufrimendua ikusgarri bihurtzen du kontakizunak, irakurlearengan elkartasun, enpatia eta gizatasun gehiago eragiteko asmoz.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: gaiaz mintzatzeko paradaz gain, irudien narratiba literarioaren balorea nabarmentzeko aukera ezin hobea eskaintzen du album honek.



MARI XOR

Idazlea: Yolanda Arrieta

Ilustratzailea: Aitziber Alonso

Denonartean, 2018

ISBN: 9788416791804

64 orrialde

Jose Arratibelen ipuin ezagunean oinarritua, *Euskal Cenicienta* edo Mari Errauskineren bertsio gaurkotua da Yolanda Arrietak moldatu eta Aitziber Alonsok ilustratutako album hau. Orain arte entzuna genuen Mari Errauskineren eta Mari Xorren arteko loturaren berri. Izan ere, euskarazko ahozko literaturak ere izan du bere Cenicienta, gaztelaniatik itzulitako Mari Errauskine baino lehenagokoa, gainera. Horri buruz asko idatzi du Yolanda Arrietak, Euskal Herriko ipuin herrikoietan emakumeen irudia aztertu eta *Gatzaren atzetik. Emakumeen irudia euskal ipuin herrikoietan: Mari-xor* liburua argitaratu baitzuen 2005ean, Emakunderen laguntzarekin. 2018an, berriz, *Klasikoak Gaur: Mari Xor* liburua ere argitaratu zuen Denonartean argitaletxearekin. Baina horiek helduei zuzendutako liburuak dira. Hau, ordea, 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzako edizioa da. Euskarazko Haur eta Gazte Literaturan Mari Xorri zor zitzaion liburua osatu dute Arrietak eta Alonsok. Pertsonaia aztertzetik urrun, bere istorioa haurrentzako idatzi eta ilustratu dute. Orriotan ez dugu betiko Mari Errauskineren ipuina aurkituko, ez, hau Mari Xor baita. Bestearen istorioarekin antzekotasunik baduen arren, honek bere berezitasunak ditu eta sortu zen garaiko hainbat ezaugarri edo arketipo garrantzitsu mantentzen ditu: gatza, besteak beste.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: ipuin klasiko bat eza-gutzeko aukera ematen du liburu honek, eta Yolanda Arrietak egini-ko saiakera honi etekin teorikoa atera dakioko.



ELEFANTEAREN TRISTURA

Gidoigilea: Nicolas Antona

Ilustratzailea: Nina Jacqmin

Itzultzailea: Miel A. Elustondo

Harriet, 2018

ISBN: 978-84-949061-6-9

80 orrialde

Maitasunaz eta bizitzaz diharduen komikia da *Elefantearen tristura*. 2016an Frantzian argitaratu zenetik hainbat sari jaso dituena. Louis da istorio honetako protagonista, inork adoptatu nahi ez duen umezurtz pottolo eta lotsatia. Bere kide guztiak iseka egiten diote, baina hori ez da okerrera. Izan ere, haiek, pixkanaka adoptatu egingo dituzte eta umezurztegitik joan egingo dira. Behin, ordea, zirkua iritsiko da hirira eta sekulako lilura eragingo du horrek Louisengan. Batez ere, Pegaso izeneko elefantea zaintzen duen neskatoak liluratuko du. Hura ezagutzeko aukera izango du eta harekin batera bizitzako une desberdinek eragindako sentimenduak: adiskidetasuna, maitasuna, banaketa, agurra... Flashback luze baten bidez eta Louisen ikuspegitik kontatzen da istorioa, eta, erraz aurreikusuteko modukoa den arren, bizitzari buruzko kontakizun zoragarria da. Jacqminen ilustrazioak ere halakoak dira: pertsonaia bakoitzari ezaugarri nabarmenenak indartu dizkio eta erabilitako koloreekin (grisak, gorriak, urdinak...) argi handiko irudiak osatu ditu.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: komikia irakurriz gozatu eta ondoren genero horren adierazpideak ezagutu (globoak, onomatopeiak, kode zinetikoak, ideogramak...).



KORRI, KURU, KORRI

Idazlea: Patxi Zubizarreta

Ilustratzailea: Rebeca Luciani


Ibaizabal, 2018

ISBN: 978-84-9106-557-9

84 orrialde

Afrikako Etiopiatik Europako Ingalaterrara doan mutikoa da Kuru. Beste etorkin asko bezala, kamioi baten ardatzei helduta zeharkatu nahi izan du Iberiar penintsula, baina hiri batean lurrera erori eta min hartuta ospitalera eraman dute. Han egin du topo jirafaz mo-zorrotuta iritsi den Norarekin. Elkar agurtzean, Kuruk bere berri eman ziezaiokeen neskatoari, baina jirafa bati buruzko ipuina kontatzea deliberatu du. Eta, hala, liburu honetan, 1827. urtean Etiopiatik Parisera iritsi zen lepaluzearen istorio hunkigarria kontatzen digu egileak. Rebeca Luciani ilustratzaile argentinar sarituak kolore-konposizio indartsuz ilustratu du bidaia luze hori, tonu ezin egokiagoan Afrikan abiatzen den ipuin honetarako. Hiru urte eta erdiko ibilbide gorabeheratsua kontatzen du Kuruk. Eta bidean izandako traba guztiei aurre egiteko “*betiere burua gora*” esaldiarekin amaitzen diren koplak errezitatzen dizkio tarteka. Ahapaldi horien bidez azaleratzen du Zubizarretak ihesaren gordintasuna, berrehun urteko tartekak batere leundu ez duen etorkinen drama bortitza, ipuinak ipuin, hori baita liburuaren muina.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: ozen eta atalka irakurri ahala, aipatzen diren lurralde guztiak eta bertako berezitasunak mapa batean identifika ditzakegu. Intertextualitatea ere landu daiteke istorioan agertzen diren erreferentziekin: Altzoko Handia, Étienne Geoffroy Saint-Hilaire, Julio Zesar...



EMILIREN DESABENTURAK

Idazlea: Antton Kazabon

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Denonartean, 2018

ISBN: 978-84-16791-84-2

117 orrialde

Abenturazko eta pasadizo bitxiz betetako istorioa idatzi du Antton Kazabonek. Emili da liburu honetako protagonista; irudimen handiko neskatoa. Kontakizuna zortzi kapitulutan emana dator eta horietan Emiliri jazotakoak edo berak sortarazitako egoera bitxiak kontatzen dira: azterketa kopiatzean gertatutakoa, elurretan lagunekin pasatakoak, onddoak harrapatzen ari zireneko ezustekoa... kontua da Emilik eta haren lagunek beti ihesean irten behar izaten dutela ataka guztietatik. Hala ere, amaieran beti irribarrea eragiten duten egoerak dira denak. Lagunen arteko elkarrizketen bidez kontatzen dizkigu Kazabonek Emiliren gorabeherak, irakurketa erraz eta atsegina eskainiz. Jokin Mitxelenarenak dira irudiak. Zuri-beltzez marraztu du guztia, Emiliren soineko gorria izan ezik. Beste guztien artean erraz nabarmentzeko moduan ikusten dugu beti protagonista. Mitxelenaren trazu itxuraz azkar eta sinplean atzean, mugimendu eta bizitasun handia ikus daiteke; umore handiko kontakizun honekin oso bat datoz eta osagarri ederrak dira.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: norberak izandako abenturak eta desabenturak ikaskideekin partekatzeko aukera polita eskaintzen du liburuak.



PRINTZESA PUZKERTIA

Idazlea: Arrate Egaña

Ilustratzailea: Manu Ortega

Baporea, 1999 / Erein, 2017

ISBN: 978-84-9109-194-3


80 orrialde

Logurepeko erresumako printzesa da ipuin honetako protagonista. Pozik bizi da, baina puzkerrak botatzen ditu etengabe eta modu kontrolaezinean. Hasieran, badirudi ez duela horrek gehiegi kezkatzen, baina, azkenean, zertxobait gogaitzen hasten da eta bere amorrarioa areagotu egiten da Kurdabitximistango printzea ezagutu eta hura ere kirastean. Ondorioz, bere gaixotasunari aurre egitea erabakiko du, eta, Kamomila sorgin onaren laguntzaz, hiru froga betetzera abiatuko da.

Ipuin guztiz tradizionalen ildotik, haien egitura eta gainerako ezau-garriak errespetatuz, Arrate Egañak buelta eman dio genero horri, eta, era horretako ipuinen berezko dramatismoa umore bihurtu du, errazkerian erori gabe.

Egañaren idazkera irakurterraza eta atsegina egiten da. Kontakizun honetan erabili dituen deskribapen, konparaketa eta gainerako baliabideak ederrak eta aberatsak dira, gainera. Ausart jokatu zuen haurrentzako bere lehen lan honetan, izan ere, gerora antzeko gaiak jorratu diren arren, liburua argitaratu zenean (1999an) gutxi landutako gaia zen hau.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: ezagutzen ditugun ipuin klasikoak hartu eta gaur egungo maitagarrien ipuinekin alderatu daitezke. Zeintzuk dira ezberdintasunak?



ZOOM

Egilea: Istvan Banyai


Fondo Cultura Económica, 1995

ISBN: 978-96-8164-903-6

64 orrialde

Istorioko bat beste baten parte bihurtzen den bezala, liburu honetan ilustrazio bat hurrengoaren barruan dagoela ohartuko gara orria pasatu orduko. Tituluak dioen moduan, zoom edo ikuspegi jolas bat da proposatzen duena. Izan ere, gerturatze zoom batez ikusiko dugu lehenengo ilustrazioa, eta, hurrengoak zoom gutxiagorekin ikusten dena erakutsiko digu, eta horren ostekoak are gutxiagorekin ikus daitekeena, eta, horrela, zooma erabat desagertu eta irudi osoa ikusi arte. Ezkerreko orrialdea beltzez agertzen da, eskuinekoan, berriz, irudi bat ikus daiteke, baina ez osorik. Eta orriak pasatu ahala zoomaren efektua ere gutxitzen joango da, amaieran ia-ia bi orrialdeak beltz bihurtu arte. Hitzik gabeko album ilustratu zoragarria da. Ezustez beterik dago, ez baitakigu hurrengo orriak zer erakutsiko digun; gehienetan, gainera, batere espero gabeko zerbait izango da. Istvan Banyai ilustratzaile hungariarrak 1995ean argitaratu zuen liburua eta urteko libururik onena izan zen *The New York Times* egunkariaren iritiz.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: liburu mutu honi hitza jartzera jolastu. Hitzik ez duten irudiei istorio bat asmatzeko aukera eskaintzen dute horrelako liburuek.



GERLARI HANDIA

Idazlea: Pello Añorga Lopez

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena


Faktoria K de libros / Pamiela, 2007

ISBN: 978-84-7681-535-9

20 orrialde

Gerlari handi batek bakardadean, elurretan pasatzen duen gau misteriotsu eta beldurgarria kontatzen dute album ilustratu honetan Pello Añorgak eta Jokin Mitxelenak. Añorgak berak aitortu izan duenez, ideia Bagdadeko bonbardaketak eragin zion, eta hortik garatu zuen Gerlari Handiaren istorioa: gerla guztiak irabazitako gerlari bat mendira joan zen, eta, bidean elurra hasi zuenez, kobazulo batean atsedean hartu nahi izan zuen, baina han mamu batekin egin zuen topo, mamu ikaragarri eta garaiezin batekin. Tonu umoretsuan edo dramatikoan irakurtzeko eta ulertzeko aukera eskaintzen du liburuak. Hitzen eta ilustrazioen artean oreka mantentzen da kontakizun guztian. Marrazkiek, orrialde osoak betetzeaz gain, indar handia dute nahiz eta kolore gutxi agertu: elurraren zuria, armaduraren horia eta mamuaren beltza. Kolore bakoitzari, gainera, esanahi jakin bat ere eman diezaiokegu. Album ilustratu honekin, Haurrentzako Album Ilustratuen I. Etxepare Saria jaso zuten bi egileek.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: filosofia eta etika bezalako alorretan ukitzen diren ongia, gaizkia eta egiari buruzko eztabaidak, historiako saioetan landu daitezkeen guda kontuak eta hauen ondorioak edota literaturako saioan eztabaidatu daitezkeen irudi, sinbolo, metafora eta gainerako baliabide literarioak aztertze-ko liburu paregabea.



ZIMURRAK

Idazlea eta ilustratzailea: Paco Roca

Itzultzailea: Bego Montorio

Argitaletxea: Astiberri, 2014

ISBN: 978-84-15685-70-8

127 orrialde

Alzheimer gaitzak jo berri duen agure bat da liburu honetako protagonista, Emilio. Bere gaixotasunaz ohartu ez bada ere, zaharren egoitza batera eramango dute senideek. Bertan, gelakide izango du Miguel. Hark erakutsiko dizkio egoitza eta bertako bizimodua, eta bertako egoiliarak ere aurkeztuko dizkio, nor bere ajeekin. Baina ez dio bigarren solairua erakutsi nahi: beren kasa moldatzeko gai ez diren agureak eramaten baitituzte hara. Zahartzaroaren ajeak ez ezik, bizitzaren azken arnasetan sentitzen den maitasuna, bakardadea, etsipena... irakur daitezke orriotan. Zahar-etxeetako errutinak; pilulak, siestak, jatorduak eta telebistak osatzen duten egunerokora ondo egokitzen direnen eta ez direnen bizimoduak ikus daitezke. Egungo zahartzaroaz hausnartzeko hainbat motibo emango digu liburuak. Halaber, alzheimer gaitzaren gainbehera zogarri ilustratzen du Rocak. Amaieran, segundo bakarra irauten duen oroimenetik, erabateko ahanzturarako tartea gaitza sufritzen dutenen begiradatik marraztu du, oso ondo irudikatuz. Nobela grafiko honek Komikiaren Sari Nazionala irabazi zuen 2008an. 2012an, berriz, film moduan estreinatu zen.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: tertulia literario interesgarria sor daiteke hainbat gaien inguruan; gaiari berari buruz (zahartzaroa, alzheimerra, bakardadea...), irudiei buruz (hutsuneak, orri zuriak, oraina eta iragana adierazteko koloreak...).

MAITE DUT
lorena martinez oronoz

MAITE DUT

Idazlea: Lore Martinez Oronoz

Ilustratzailea: Lorena Martinez Oronoz

Edo, 2014

ISBN: 978-84-940489-6-8

16 orrialde

Poema ilustratu bat da Lorena Martinez Oronozek kutxatxo urdin honetan jaso duena; formatu karratuan marraztutako 16 ilustrazio, eta, poema bat irudi guztiei egileak eman dien ordena erakusten duen orrian idatzia. Lau bertsoz osatutako olerkia da, bertso bakoitzari lau irudi dagozkio, eta esaldi bakoitzari bat ere jar daikioke. Baina irudiak solte daudenez, egileak proposatutako ordena hankaz gora jar dezake irakurleak, bere ordena ezarriz eta irudien bere irakurketa propioa eginez. Hala ere, kanpotik barrura eta barrutik kanpora doan bidaia proposatzen du Martinezek, norberaren kontzientzia hartzeko gonbitea mundua maitatu ahal izateko. Inguratzen gaituzten naturako elementuetatik abitu (*MAITE DUT eguzkia / ilargia / zerua...*) eta norbera izan daiteke helmuga (*...MAITE DUT neure burua*). Zerutik hasi eta norbanakora egiten du irudiz osatutako bide horrek, eta, tartean, loreak, giltzak eta eskuak daude irudikatuta, besteak beste. Maitasunari idazteko beharrak bultzatuta sortu zuen lan hau. Azken finean, norberegandik urrunen dagoenaren maitasunetik gertuen dagoenarenerako bidea egiten du ilustrazioen eta hitzen bidez. Irudiak, hitzak bezala, oso modu xehean jaso ditu; moztutako paperen collageen bidez egindakoak dira ilustrazioak eta ahalik eta gehien sintetizatzen ahalegindu da Martinez, irudiarekin hitzaren esentziara iritsi arte.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: idazketa artistikorako aukera paregabea eskaintzen digu liburu honek. Poesia ilustratua eta irudiekin lagunduta dagoen poesiaren arteko desberdintasunaz ohartzeko balia dezakegu.



MALEN LABIRINTO MADARIKATUAN

Idazlea: Joxerra Gartzia

Argitaletxea: SM, 1986 / Erein, 2018

ISBN: 978-84-9109-210-0

88 orrialde

Donostian, Igeldo jolas-parkean, labirinto berezi bat dago; madarikatuta dagoela diote, hainbat eta hainbat pertsona desagertu direlako bertan, eta agintariak ez dakite zer egin. Gauzak horrela, labirintoan sartzea erabaki du Malenek. Han barruan, pentsa litezkeen pertsonariak bitxiak aurkituko ditu, eta azkenerako lanak izango ditu labirintotik ateratzeko. Onirikoa, arraroa, absurdoa, baina era berean zentzuzko mezu asko biltzen dituen bidea da Malenek atrakzio bitxi horretatik irteteko tentu handiz egin behar duena. Huts egiteak garesti ordain ditzakeela gogorarazten diote uneoro; okerreko atea hautatuz gero, bertan geratuko da betiko, desagertutzat jotzen diren beste hainbat eta hainbat bisitari bezala. Irakurlea estutzerainoko agonia biziko du protagonistak, eta, zenbaitetan *Alizia herrialde miresgarrian* liburua gogoraraziko digu Gartziazen honek. Liburu honek Bapore Saria eskuratu zuen 1985ean eta 1986an argitaratu zen lehen aldiz. 2018an edizio berria argitaratu du Erein argitaletxeak.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: kondairen inguruan solas egiteko edota absurdoa eta nonsense-az jarduteko aukera ematen du liburua.



SASIOLAKO ERROTARIA
Idazlea: Ramon Olasagasti
Erein, 2018
ISBN: 978-84-9109-293-3
96 orrialde

Misterioa, fantasia eta beldurra dira liburu honetako osagai nagusiak hasiera-hasieratik. Izan ere, liburu honetako protagonista, Ander, begitan hartua du zenbaitek eta ez dute bakean uzten. Jazarpen hori nahikoa ez eta Sasiolako errota abandonatura eramango dutela egiten diote mehatxu. Herrian beti izan dira zurrumurruak eta kontu ilunak Sasiolako errotari buruz eta inork ez luke nahi han gaua pasatzerik, aspaldiko istorio beltz bat gordetzen baita errota zahar hartan. Euskal Herriko edozein herritako pasadizo edo istorio ilun bat izan liteke hau; errealitatearen eta fantasiaren arteko muga lau-so horretan, egia eta gezurra nahasten diren espazio irudimentsu horretan. Ahoz aho transmititutako kondaira bat idatziz emango balu bezala osatu du istorioa Olasagastik, hizkera oso aberatsean baina gazteengandik gertu mantentzeko moduko ukituekin. Belaunaldi berriak zaharrekin lotuko dituen istorio honekin 2017ko Lizardi Saria eskuratu zuen egileak. Ez da sari hori jasotzen duen lehen aldia, izan ere, 2013an *Suugar* (Elkar, 2014) lanarekin ere lortu zuen Lizardi Saria.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: herrietako kondairaren inguruan solas egiteko edota beldurrezko nahiz misteriozko istorioak gelan kontatzeko aukera eman dezake.



ENIGMA BI, ERANTZUN BAT

Idazlea: Patxi Zubizarreta


Alberdania, 2018

ISBN: 978-84-9868-383-7

86 orrialde

Izenburuak berak dioen bezala, bi enigma kontatzen dizkigu Patxi Zubizarretak liburu honetan. *Emakume sugearen misterioa* enigmak Euskal Herriko lehenaldira eta Birmaniara garamatza, adiskidetasuna eta lehen amodioak medio. *Jentziren* enigmak, ostera, India eta Himalaia ezagutaraziko dizkigu, abenturak eta malenkonia bidelagun. Nerabeei zuzendutako liburua da hau. Bertan Ruben detektibeak benetako bi desagerpen dokumentatu eta idatzi nahi ditu aldizkari baterako. Lehen ihesean nerabe bat da protagonista, bigarrenean bikote bat. Desagertzeko arrazoiak ere ezberdinak dira: batean maitasuna eta bestean gaixotasun bat. Bi enigma, beraz. Erantzuna, ordea, bakarra ote da? Zein ote da?

Bitartekariaren esku hartze proposamena: lehenengo ipuinari lotuta, pertsona harrigarrien zerrenda egin dezakegu, *Handia* filme-ko pertsonaia gogora ekarriz. Gure herrietan horrelakorik ba al da? Nork kontaktuak?



JESSICAREN ITZALA

Idazlea: Andrew Norris

Itzultzailea: Usoa Wyssenbach Ibarra


Desclee, 2017

ISBN: 978-84-3302-940-9

184 orrialde

Liburu berezia da, espero ez den bidetik jotzen duena, irakurlea behin baino gehiagotan harrিতuz, kontaketa arin batean txertatutako mezu batekin; uste baino sakonagoa gertatzen da. Hildakoak ikusten dituen mutiko baten eta hildako neskato amnesiko baten adiskidetasun harremanarekin hasten da kontaketa. Baina kontaketak aurrera egin ahala izu istorioekin zerikusi gutxi duela ohartuko gara. Agian, zenbaitek pentsa lezake bullying kontuei buruzkoa izango dela liburua, baina ez da guztiz horrela ere. Funtsean, adiskidetasunaren balioak azpimarratzea eta laguntasuna bestelako gora-beheren gaineratik dagoela adieraztea izan da idazlearen asmoa. Oro har, mezu baikorra zabaldu nahi izan du lan honekin, baita, irakurlea entretenitzeaz batera, hezigarria den hausnarketaren bat edo beste eginaraztea.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: hainbat gai jorra ditzakegu liburu honen irakurketarekin: heriotza, mamuak, eskola jazarpena, nork bere buruaz beste egitea, eskola aldaketa...



LIMOIONDOAREN LOREAK

Idazlea: Lur Gallastegi

Ilustratzailea: Susanna Martin


Elkar, 2017

ISBN: 978-84-9027-727-0

141 orrialde

Orainaldia lehenaldiarekin lotzen duen bi planoko istorioa da hau. Luna, 12 urteko neskatila, da liburu honetako protagonista nagusia eta bi planoen ardatza. Donostian bizi da bere amarekin (Viola), amaren lagunarekin (Claudia) eta, haren alabarekin (Daniela). Inaxiren etxean bizi dira, Lunaren amak zaintzen duen andrearenean. Luna eta bere familia, jatorriz, Nikaraguakoak dira eta amona gaixotzen denean, amak hara bidaiatu behar izango du, hura zaintzeko. Baina, aldi berean, Inaxi ere gaixotu egingo da, eta, Violeta Nikaraguan dagoenez, Claudia izango da Inaxiren ospitaleko zaintzez arduratuko dena. Luna, berriz, Daniela txikia zaintzeaz arduratuko da. Egoera zail horren erdian, Lunak bere amonak idatzi zion liburua eskuratuko du; amak Nikaraguara joan aurretik eman ziona. Bertan, bere jaioterriari buruzko historia ezagutuko du, Iraultza Sandinistaren garaiak bere amonaren eta amaren bizitzan eragin zuena, eta ordura arte susmatzen ez zituen beste hainbat gertaera, ezinbestekoak bere familiarentzat.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: etorkinen inguruan hitz egiteko aukera eman dezake, norik egiten ditu bertakoek gus-tuko ez dituzten lanak? Onartuko al genuke geuk baldintza horietan egitea? Eta noizbait emigratzea guri egokitzen bazaigu?



EZPAINETAKOA

Idazlea: Ane Labaka

Ilustratzailea: Malen Amenabar

Erein, 2018

ISBN: 978-84-9109-343-5

32 orrialde

Album ilustratu eder honetan testuek eta irudiek elkar elikatzen dute, irudiek hitzei beste zertzelada batzuk gehitzen dizkiete; orrien artean arnasaldi bat, geldialdi bat, irakurketa berri bat eskaintzen dute. Narrazioa ezpainenakoa batetik abiatzen den arren, gorputzak hartzen du protagonismoa, bai idatzian eta bai ilustrazioan, erotismoz osatutako narrazioa da. Taberna-giroan gau batez hasten den harreman bati buruzko istorioa edo gogoeta da; narratzailearen gogoratze-ahazte eta gogoeta ariketa bat. Harremanaz eta horretan aurrera edo atzera egiteko gorputzak nahiz buruak duten indarrak dihardu. Geruza bat baino gehiago ditu; horietako batean hitzek eta ilustrazioek iradokitzen duten gaiak indar berezia ematen dio album honi. Sexua, jolasa, erotismoa, maitasuna, maitemina, ahanztura, oroimena, memoria... Hitzekin eta horien grafiarekin jolas egiten du liburua: karmina eta mina; ahaztea eta ez gogoratzea; tatuajea eta aztarnak; memoria eta lokatza...

Bitartekariaren esku hartze proposamena: Hausnarketa intimoak eta sakonak egiteko aukera eskaintzen du. Ondoren, ordea, bitartekariaren laguntzaz tertulia literariora eraman daitezkeen hausnarketak.



GARTXOT

Egileak: Asisko Urmeneta, Marko Armspach
eta Jokin Larrea


Argia, 2003

ISBN: 978-84-9326-697-3

90 orrialde

Itzaltzuko (Nafarroa) Gartxot Erdi Aroko euskal poeta edo bardoa izan zen, belaunaldiz belaunaldi ahoz aho transmititu zena, Arturo Campionek idatziz jaso zuen arte, *El bardo de Itzaltzu* liburuan, 1917an. Komiki-liburu hau, berriz, 2003an argitaratu zuen Asisko Urmenetak, Jokin Larrea eta Marc Armspachekin batera. XII. mende hasieran Orreagako fraideek Mikelot, Gartxoten semearen ahots ederraren berri izan zuten, eta, beren abade-etxean nahi izan zuten, haren ahots ederraz gozatzeko. Gartxotek, ordea, ez zuen onartu bere semea galtzea eta abade-etxetik Itzaltzuko mendietara ihesi eraman zuen. Zaraitzuko jaunak aginduta, soldaduek preso hartu zituzten aita-semeak. Haurra fraideen eskuetan erortzea jasan ezinik, Gartxotek semea hil egin zuen, eta ondorioz, sutara kondenatua izan zen. Kondena haren ordainean, bost urterako itxi zuten Gartxot, Abodi mendiko Elkorreta bortuan eraiki zuten dorre batean. Lan ederra egin zuen Urmenetak elezahar hau komiki moduan argitaratuz, belaunaldi gazteek nekez ezagutuko bailukete bestela.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: Kontakizun honetara hiru euskarri desberdinetik gerturatu gaitzke, komikia, filma eta dibulgazio-liburua. Ezinbesteko material bihur daitezke, historia eta geografia gaietan.



BESARKADA

Idazlea: Uxue Alberdi

Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga

Elkar, 2015

ISBN: 978-84-9027-414-9

28 orrialde

Benetako besarkada batek sorrarazten duen zirrara eragiteko gai da liburu hau. Horretarako hitzei bezainbat edo gehiago erreparatu behar zaie irudiei, adi behatuz irakurtzea merezi dute. Izan ere, benetako besarkada testuaren eta irudien artekoa da liburu honetan; elkarren osagarri dira eta ez lukete indar bera izango aparte irakurrita. Testua koplak bidez emana dator; Bizkaiko koplak zaharren moldean erabiliz idatzi du Uxue Alberdi bertsolariak. Lehen bi lerroetan naturako irudi baten zertzelada ematen da, ondoren ideia hori biribiltzen da. Gaiari dagokionez, biltzearen eta askatzearen artean dagoen bide mingarri, hotz eta gozoa kantatzen du Alberdik, eta, bizitzaren eta heriotzaren arteko kulunka hori ezin hobeto ilustratu du Gurrutxagak, bere ilustrazioei darian malenkonia kutsuarrekin; euria, haizea, kolore apalak... Alberdik idatzitakoari beste dimentsio bat eman die ilustratzaileak: aita-alaben arteko besarkada fisikoa irudikatzeaz gain, ikusten ez den baina nabarmen sentitzen den beste norbaiti emandako besarkada sinbolikoa iradoki du. Era berean, aitatasun horren alde intimoa ere erakusten du.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: irudien irakurketei tarte bat egiteko parada ezin hobea eskaintzen du album honek, irudien narratiba irakurtzen ikasteko material interesgarria da.



EFEKTU BEREZIAK

Idazlea: Jordi Sierra i Fabra

Itzultzailea: Iraitz Urkulo

Ibaizabal, 2017

ISBN: 978-84-9106-237-0

212 orrialde

Azken aldian, gauzak oso zail jarri zaizkio liburu honetako protagonistari. Hurrengo Olinpiar Jokoetara joan ahal izateko presio handia du, azken aukerak baliatu behar baititu bere marka hobetzeko. Kontua da bere aitona, atleta ona hura ere, antzeko egoera batean egondakoa dela eta huts egiteak bizi guztiko damua ekarri ziola; horrek, noski, are gehiago estutzen du. Hori nahikoa ez, eta, aita gainbehera darama minbizia batek. Dena ilun ikustearekin batera, andregaiarekin duen harremana ere ez dago unerik gozoenean, gainera, beste kirolari bat berekin oheratu nahian dabil. Tunel beltzaren amaierako argia ikusi beharrean gauzak geroz eta gehiago nahastuko zaizkio entrenatzaileak marka hobetzen lagundu beharrean, bide okerretik jotzeko proposatzen dionean. Zailtasunak eta norberaren mugak gainditzeaz diharduen nobela laburra da. Gazte Literaturan erreferente bihurtu da Sierra i Fabra, eta, bere lan gehienek bezala, honek ere irakurlea liburura kateatzea lortuko du.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: bakarka erraz irakurtzeko eleberri inizatiko aproposenetarikoa da. Solasaldi literario baterako aukera ematen dute jorratzen dituen gaiak. Book trailer bat egiteko aukera asko eskaintzen dituen liburua da.



MAREN

Idazlea: Alaine Agirre

Erein, 2017

ISBN: 978-849109-205-6

117 orrialde

Gurasoei hutsik egin nahi ez dien neska nerabea da liburu honetako protagonista: Maren. Alaba bakarra da, ikasle ona eta oso esanekoa etxean. Hamasei urte ditu eta mutil-laguna du, baina ez dago bere sentimenduez erabat ziur. Zalantzak areagotu egingo zaizkio Libe izeneko neska batek inoiz sentitu gabeko sentimenduak eragingo dizkionean. Bien arteko harremanaren hasiera kontaktzen du liburu honek, baita mutil-lagunarekin atzean utziko duen harremana ere. Nerabegaroko maitasun gorabeherak dira ardatz nagusi, bereziki, nesken arteko lehen harreman homosexualak. Hortaz, nerabeei zuzendutako beste hainbat eta hainbat istoriok baino ekarpen interesgarriagoak aurki daitezke bertan. Idazkerari dagokionez, elkarriketek hartzen dute obraren zatirik handien, eta 29 atalez osatuta dago. Arin eta erraz irakurtzeko moduan idatzia dago. Honen atzetik argitaratu diren *Libe* eta *Oier* liburuek jarraipena ematen diote Marenen gertaera eta sentimenduei, besteen begietatik bada ere.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: jolas egin daiteke maitasun istorio horri beste amaiera batzuk emanaz, harremanean beste pertsona bat sartuko balitz zer gerta litekeen irudikatuz... Maitasunaz eta harremanez hitz egiteko aukera ematen du.



KAMISOI ZURI ZETAZKOA

Idazlea: Alaine Agirre

Ilustratzailea: Sara Morante

Erein, 2018

ISBN: 978-84-9109-330-5

64 orrialde

Nerabezaroan sartzen hastear dago liburu honetako protagonista. Sexu-harremanetarako ohiko adin-jauzia eman ez duen neskato bati buruzko istorio lazgarria da Alaine Agirrek eta Sara Morantek liburu honetan eleganzia handiz kontatzen dutena. Gurasoek ingelese ikasteko kanpamentura bidali zutenean 11 urte zituen. Nerabezaro aurrean izanik, nagusia izan nahi zuen eta horrexegatik erosi zion amak lehenengo bularretakoa. Hala ere, haurra zen oraindik, ez zuen ezagutzen helduen mundua. Udako kanpamentuan begirale bat ezagutuko du, besteak ez bezalakoa. Protagonista haren ama-raunean harrapatuta sentituko da oharkabean, ezagutzen ez dituen joko-arauetan itxita. Abusatua izango da, hortaz, oso istorio dramatikoa da. Patuaren ezinbestekotasunaz ohartuko da irakurlea eta ezinbestean gertatuko da gertatu beharko ez lukeen hori. Agirre ez da xehetasunetan galtzen, oso iradokitzailea da, irakurlearen irudimenak erantsiko dio idatzita ez dagoena. Sara Morante ilustratzailearen lana ere oso iradokitzailea da, oso elegantea.

Bitartekariaren esku hartze proposamena: hainbat gai sozial, filosofiko, zein literario atera daitezke: hilekoa, emakume-identitatea, pederastia kasuak, sexu erasoak eta abusuak, biktimak eta erasotzaileak, culpa-sentimendua...



AMATTOREN UZTA + APP

Idazlea: Mayi Ariztia

Moldatzailea: Patxi Zubizarreta

Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga

Alberdania-Erein-Igela, 2012


ISBN: 978-84-9746-781-0


87 orrialde


“Amattoaren uzta” Mayi Ariztiak entzun, bildu, jaso eta idatzitako ipuin herrikoien bilduma da, 1934an lehen aldiz argitarara eman zena eta 2012an berrargitaratu zena Galtzagorri elkarteak sortutako Klis-klasikoak bilduman. Edizio honetan Patxi Zubizarretak bilduma hura birmoldatu eta eguneratu egin du. Liburuak dituen hamasei irudietan, Maite Gurrutxaga ilustratzaileak landa giroko iruditeria ohikoari ikusmolde berri bat erantsi dio, klasikoa bezain berritzailea.


“Amattoaren uzta app”an liburuan biltzen diren ipuin tradizio-naletan oinarritutako 5 transmedia kontakizun eta jolas sortu ditu Galtzagorri elkarteak, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Orona Fundazioaren eta Erein argitaletxearen laguntzarekin. Beldurrezko abentura grafiko bihurtu du “Itsasuar baten istorioa”; abentura grafikoa sortu du “Hartz-kumeren istorioa”rekin; 360 graduko esperientzia diseinatu du “Gameluaren istorioa” oinarri hartuz; guda desafio jolasa asmatu du “Ama-alaba batzuen istorio”tik abiatuz; eta ipuin interaktiboa “Arttoren istorioa”n oinarrituta. Guztia gainera berariaz sortutako musikaz lagundurik.


Bitartekariaren esku hartze proposamena: liburua irakurri (ozen, kapituluka gelan bertan...) eta aplikazioa deskargatu jolas egin dezaten.













EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Galtzagorri
elkartea

